

AHTren kontrako ekitaldietan parte hartzera deitu du LABek

Sindikatuak nabarmendu du azpiegiturak ez dituela langileen garraio arazoak konponduko

ERREDAKZIOA
Bilbo

LAB sindikatuak Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako mobilizazioetan parte hartzera deitu ditu langileak. Bai langileen batzarretan, bai abenduaren 2ko Anoetako (Gipuzkoa) eta Elorrioko (Bizkaia) herri galdekietan eta baita Arrasaten (Gipuzkoa) abenduaren 15ean egingo den manifestazioan ere. Zenbait lantokitan langile batzordeek AHTren aurka jarri har dezaten saiatuko da.

AHTren aurkako «uholdea» «hazkunde itzela» izaten ari dela uste du LABek. Lanen «moteltasu-

naren» arrazoiak sortutako arazoak direla nabarmendu du: herritarren mobilizazioaren areagotzea, desjabetzeekin izandako arazoak, «eraginaren informazioa jaso ahala» azpiegituraren aurkako jarrera hartzen duten herritarrak... «Eta hau elur bola baten modukoa izango da», dio LABek. «Lanak hedatu ahala, jada ezinezkoa izango zaie zenbait ondorio ezkutatzeko».

Sindikatuak nabarmendu du lana dela herritarrak alde batetik bestera mugitzeko arrazoi nagusia. Eta langileek beren desplazamendu premiak eta bizi-kalitatea hobetuko dituen garraio publikoa eta hirigintza eta lurralde antolaketa eredua behar dituztela. Datuak ikusita, AHTk ez ditu premia horiek betetzen, LABen arabera: «Joan-etorri motordunen %0,4 ere ez ditu hartuko. Inork pentsatzen al du AHT ikasleen eta langileen mesederako izango dela? Txartela-

ren prezioa ezkutatzen dute, eta abiadura handiak soilik hiriburuaren arteko ibilbideak lehenestek kalte estrategikoa egingo digu».

LABek salatu du AHTk ez duela ez errentagarritasun sozialik ez ekonomikorik izango. «Denon artean ordainduko dugu eta apur batzuen bidaia ordaintzeko izango da. Eta ez, hain zuzen, herri xeheko biztanleentzat». AHT egitea dirutza xahutzea da LABen iritziz: 9.000 milioi euro.

Anoetako LABeko langileek eta Orbinox, Calcosa eta Tarte enpresetako ordezkariak bat egin dute abenduaren 2ko herri galdekietan AHTri ezetz esango diotela iragarri dute. «AHT langile klasearen aurkako proiektua da. Ez ditu konponduko Euskal Herriko garraio arazoak, ez baititu askorik gutxituko errepideetako autoak eta kamioiak».

Atzean itzultzailea dago (III)

Euskarazko filmen aldeko lanean tinko



MARIAN GALARRAGA
Tinko Euskara
Elkarteko lehendakaria

Duela hamabost urte Tinko sortu genuenean, Euskal Herriko ikus-entzunezko merkatuan hutsune izugarria zegoen. Telebista kate bat genuen euskaraz, bideoak euskaraz salgai zeuden, irratia euskaraz entzuten genuen, egunkari bat zegoen euskaraz hutsean, liburuak, aldizkariak..., baina zinema areto batera hurbiltzean, ez genuen ikusten euskararen arrastorik ere.

Euskaraz zinerik ez egotean, euskararen normalkuntzarako elementu garrantzitsua falta zela ikusi genuen. Baina zinea euskaraz kontsumitzeak utopia hutsa zirudien.

Film banaketari buruz ezer gutxi jakinda hasi ginen hutsune hori bete nahian. Gure lehenengo bezeroak haurrak izango zirela erabaki genuen hasieratik; zinearen esperientzia ohituratan oinarritzen denez hein handi batean, euskaraz zinea kontsumitzearen ohitura txiki-txikitatik ezarri gero, etorkizunean filmak euskaraz ikustea normaltasunez egingo zela pentsatu genuen.

Gaur egun munduko zine aretoetan ikusten diren film kopuru handiena Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan ekoizten dela kontutan hartuz, argi dago itzultzailearen lana funtsezkoa dela. Itzultzaileak posible egiten du atzerriko kultura, herrialde, ohitura eta jendeak guri ekartzea eta guk ezagutu ahal izatea gure zine aretoko eserlekitik mugitu gabe.

Filmak itzultzea ezinbestekoa da atzerriko kultura gureganatu nahi badugu. Berdin da jatorrizko bertsioa azpidatizita

Filmak itzultzea ezinbestekoa da atzerriko kultura geureganatu nahi badugu. Itzultzaileak lehenik bereganatu behar du atzerriko hizkuntzan esandakoaren sentimendua, nortasuna, kultura, eta gure hizkuntzara ekarri, guk gauza bera senti dezagun.

edo bikoiztuta, baina itzultzaileak lehenik bereganatu behar du atzerriko hizkuntzan esandakoaren sentimendua, nortasuna, kultura, eta gure hizkuntzara ekarri, guk gauza bera senti dezagun.

Norbaitek liburu bat idatzi edo film bat egin duenean, bi edo hiru

urteko haurdunaldiaren ondoren erditutako kumea dela esango nuke. Logikoena izango litzateke, kume horren arrakasta neurtea, zenbat eta hizkuntza gehiagotan itzulia izan dela ikustean. Horregatik ez nuen ulertzen zergatik Disney, Warner eta beste banatzaile askok ez zuen nahi beraien filmak euskarara bikoiztea, nire ustetan zenbat eta hizkuntza gehiagotan itzuli hobe, ezta?

Denborarekin konturatu naiz banatzaileak ez direla izan filmaz erditu direnak, filma erosi dutenak baizik, horregatik beraiatzat filma dirua egiteko tresna besterik ez da bihurtzen. Zenbakiak egiten dituzte eta konturatzen dira euskarara bikoizteak enbarazu besterik ez diela egiten. Orain arteko irabazkiak kontutan hartuta, noski. Aurrerantzean, Disney bera ere etekin txikiagoekin konformatu beharko duela uste dut eta euskarak ematen dion gutxi hori gustura hartuko duela. Merkatua dagoen moduan, auskalo zer ikusteko gauden.

Tinkon, tinko jarraituko dugu, ahalik eta film onenak lortzen euskarara itzultzeko. Ez dugu besteak baino gutxiago izan nahi. Gaztelaz bikoizten gutxienez hirurogei urte darabate, eta jarraitzen dute. Guk hogeia eta bost besterik ez darabate eta gero eta gehiago itzuli ordez ez dakit ez ote garen gutxiago itzultzen ari. Benetan gustatuko litzaidake film gehiago ikustea euskarara bikoiztua, euskal telebistan behintzat. Zine aretoetan bai, gero eta film gehiago ikus ditzakegu euskarara itzulita, haurrentzat gehienbat, atzerriko kultura gureganatuz gure hizkuntzan, eta ez ahaztu: bikoiztutako film bakoitzaren atzean... itzultzailea dago.



Abiadura handiko trenaren kontrako manifestazioa, ekainean, Elorrioren. RAUL BOCAJO / ARGAZKI PRESS

Osasunbideko lan baldintza kaskarrak salatu dituzte hamabost zuzendarik

ERREDAKZIOA
Nafarroa

Nafarroako landa eremuetako oinarritzko osasun zerbitzuetan langileak falta direla eta langile horien lan baldintzak «penagarriak» direla salatu dute 15 Oinarritzko Osasun Eremitako zuzendarik. Landa eremuetako oinarritzko zerbitzuaren egoera «negargarria» dela diote.

Egoeraren zenbait adibide eman dituzte: zenbait medikuk 103 ordu jarraian lan egiten dituzte eta mediku horiek elkarren oporrak osatu behar dituzte. «Baina kontsultak ez daude parez pare, 30 edo

40 kilometrora baizik, eta tartean 10-15 herri daudela. Ez du merezi adibide gehiago jartzea, gero eta tristeagoak baitira».

Aurtengo urrian BERRIAK Donostetako osasun zerbitzua indartzeko lanetan ari zen Aiora Telletxea erizainarekin hitz egin zuen: aste hartan 117 ordu lan egin zuen eta osasun etxean bertan lo egin zuen.

Hamabost zuzendari horien esanetan, langabezia dauden medikuek uko egiten diote baldintza horietan lan egiteari. «Eta uko horrekin bat gatoz. Ondorioz, landa eremuetako familia medikuok lan

hori egin behar izaten dugu, hala-beharrez, zerbitzu premiengatik, langabezia daudenek baztertzen dituzten baldintza ekonomikoekin».

Egoerak eragina du oinarritzko osasun zerbitzuetako langileengan: «Profesionalok estresatuta gaude, gero eta nekatuago eta gero eta motibazio gutxiago dugu gure lana egiteko».

Konponbidea eskatu dute: oinarritzko zerbitzuaren behin betiko eta berehalako berregituratze sakona. «Parte hartu nahi duten talde guztien lanarekin egin eta hitzartu».